

## Irakasleentzako Gradurako Egokitze Kurtsoak

Irakasle ikasketetan diplomatuak direnentzat, Gradurako Egokitze Kurtsoa online egiteko aukera, derrigorrezko tutoretza-saio presentzialekin.

Gaia Hezkuntza

Egutegia 2018/10/02 - 2019/06/28

Tokia Eskoriatza <http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/zer-den-huhezi/non-gauden>

Hizkuntzak Euskara

Modalitatea Online

### Helburuak

Ikasketa hauen helburua da irakasle ikasketetan diplomatuak direnei, Gradu titulua online lortzeko aukera ematea.

Ikasketak eta lana uztartzea ahalbideratzen duen online modalitate horretan, derrigorrezkoa da era presentzialean egitea tutoretza-saioak.

### Nori zuzendua

Irakasle ikasketetan diplomatuak, hau da, **irakasleak** izan behar dira. Hauetariko titulu baten jabe izan behar da:

- Irakasle titulua, espezialitatea edozein dela ere. (RD 1440/1991).
- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle titulua, espezialitatea edozein dela ere.

### Metodologia

- Eredu berritzailea.
- Pertsona ardatz.
- Konpetentzietan oinarritutako ikaskuntza.
- Metodologia aktiboetan oinarritutako ikaskuntza.

### Egutegia



## Onarpen baldintzak eta prozesua

Inskripzioa egiterakoan egiaztatu behar diren hizkuntza-mailak hurrengoak dira:

### Euskara-maila: C1

C1 maila egiaztatzen ez dutenei hizkuntza-proba bat egingo zaie (47/2012 DEKRETUA, apirilaren 3koa).

Probaren tasa 50 €-koa izango da.

### Ingeles- maila: B1

B1 maila egiaztatzen ez dutenei hizkuntza-proba bat egingo zaie (Orden ECI/3857/2007; Orden ECI/3854/2007).

Probaren tasa 50 €-koa izango da.

## Nola egiaztatzen da hizkuntza-maila?

### Euskara

- EGA agiria edo dagokion Hizkuntza eskakizuna (Administraziorako PL3; Hezkuntzarako PL2)
- Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean diplomatura eginda edukitzea
- Diplomatura Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean egin ez bada, baina bai euskaraz, 47/2012 DEKRETUAK dioenaren arabera

Dekretuaren erreferentzia: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2012/04/1201701e.pdf>

### Ingelesa

- Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean diplomatura eginda edukitzea
- PET, FIRST edo goragoko egiaztatzea

Aginduen erreferentzia: <http://www.boe.es/boe/dias/2011/11/09/pdfs/BOE-A-2011-17630.pdf>

Lehen Hezkuntzako **Atzerriko Hizkuntzaren ibilbiderako** hasierako hizkuntza-eskakizuna beste ibilbideen berdina bada ere, ikasketen bukaeran, berriz, **B2** mailaren akreditazioa beharko da lanean aritzeko (RD 1594/2011).

Dekretuaren erreferentzia: <http://www.boe.es/boe/dias/2011/11/09/pdfs/BOE-A-2011-17630.pdf>

## Materiak edo ikasgaiak euskaraz egingo dira. Salbuespenak:

- Lehen Hezkuntzako 1. eta 3. multzoetako kurtsoetan ingelesez materia bat dago.
- Haur Hezkuntzako 1. multzoko kurtsoan ingelesez 2 materia daude, eta 3. multzoko kurtsoan, bat.
- Atzerriko Hizkuntzako ibilbideko materia espezifiko guztiak ingelesez egingo dira.

## Ibilbideak

- **Haur Hezkuntza gradua**
  - Haur Hezkuntza
  - Atzerriko Hizkuntza
- **Lehen Hezkuntza gradua**
  - Lehen Hezkuntza
  - Atzerriko Hizkuntza
  - Hezkuntza Berezia
  - Heziketa Fisikoa
  - Entzumena eta Mintzaira. BERRIA!

## Kredituen aitortza

Kredituen aitortza kasuz kasu aztertuko da.

Ezinbestekoa izango da ikastetxeko zuzendariaren egiaztagiria, edo, eskaini den Hezkuntza Erakundeko organo eskudunak egiaztatutako zerbitzu-agiria aurkeztea. Egiaztagiri horietan, ezinbestean azaldu beharko dira: eskainitako zerbitzuaren hasierako eta bukaerako eguna, etapa edo maila eta ibilbidea.

## Prezioa

2021-22 ikasturterako prezioa:

- Sarrera kuota: 900 €
- Kreditu bakoitzaren prezioa: 90 €

*Prezio hauek behin-behinekoak dira, Errektore Kontseiluaren onarpenaren faltan.*

**Ordainketa:** Matrikula egiterakoan sarrera kuota ordainduko da. Ikasturte horren kredituen kopuruari dagokion zenbatekoa kuotatan ordainduko da.

## Informazio gehiago

Saioa Altuna

[idadkaritza.huhezi@mondragon.edu](mailto:idadkaritza.huhezi@mondragon.edu)

943 71 31 39

